

Nola aztertu Natur Zientzietako Material Curricularrak? Lehen Hezkuntzako testu liburuak aztertu behar dituzue kontutan izanik (Bigarren Hezkuntzarako Natur Zientzien Didaktika irakasgaien Bigarren Hezkuntzakoak aztertu behar dira). Informazio gehiago eta zabalagoa erreferentzia bibliografiko honetan duzue.

VÁZQUEZ J. R., RUIPÉREZ CALLEJA T., NUÑO ANGÓS M. T. (1998) La reforma en los libros de texto de ciencias de la naturaleza de la ESO. *Revista de psicodidáctica*. 5, 115-124

Ikasle bakoitzak argialetxe bat eta ikasturte bat hartu behar du (gai bat ongi aztertzea nahikoa da). Testu liburu horretan Natur Zientziak eta Teknologia gai bat aztertu behar ditu. Gai guztien planteamendu metodologikoa berdina al da? Ondorengo puntuak aztertu behar dira gai horretan dagoen metodologia sakontzeko.

Lehendabizi JARDUERA-MOTA-METODOA koadroa egin behar duzu.

Motak a,b,c,d,e,f,g,eta h dira eta metodoak 6. iikasgaien dituzu.

I)

- a) Ba al daude eta nola planteatzen dira aurre ideiak detektatzeko (ikasleak dakiena eta ikasleak dituen pentsatze eta arrazoitze erak detektatzeko) jarduerak? Gai bakoitzeko zein unetan proposatzen dira?
- b) Azaltzen al dira gaiak lantzeko aurrez ezagutu behar diren ezaguerak?
- c) Motibaziorako zerbait agertzen al da? (akademikoa, ludikoa, gertutasuna, eguneroko bizitzarekikoa, afektiboa,...)
- d) Helburuak azalduz aurkitzen al dira? Nola?
- e) Gertakizun Fisiko eta naturalak interpretatuz ikaslearen pentsaeraren eboluzioa laguntzeko eta bultzatzeko jarduerak ezaguera teorikoen aurretik planteatzen al dira? Horrelako jarduerak planteatu daitezke: aurre ideiekin konparazioa, analogien edo antzekotasunen proposamena, pentsatzeko beste era berrien proposamena, parte hartzen duten aldagaien identifikazioa, esanguratsua direnekin konparazioa, erlazio berrien proposamena,... Ikasleak jarduerak egiteko eduki minimoetaz jabetuz ikasteko zerbait egitea proposatzen al zaio (teoria jaso edo irakurri aurretik behin behineko ideia batzuek garatzen al ditu jarduerak horien bitartez)?
- f) Analogiak, metaforak, marrazkiak, argazkiak, testuak... agertzen al dira ulerkortasuna (eduki kontzeptualen formalizazioa, berrantolaketa eta transmisioa) bultzatzeko?
- g) Ebaluazio jarduerak proposatzen al dira?
- h) Egindako ikaskuntzen baliagarritasuna edo funtzionalitatea (aplikazio edo transferentzia jarduerak) proposatzen al dira?
- i) Eduki kontzeptualak, prozedurazkoak eta balio/jarrera/arauzkoak integraturik ala banandurik agertzen al dira?
- j) Eguneroko bizitzarekin erlazionaturiko jarduerak agertzen al dira?
- k) Eskemak, mapa kontzeptualak edo antzeko heuristikoa egiteko jarduerak agertzen al dira?
- l) Talde jarduerak egitea bultzatzen al da?
- m) Lan praktikoak errezeta moduan agertzen al dira ala ikerketa moduan agertzen dira?
- n) Lan bibliografiko irekiak edo proiektuak egitea proposatzen al da?
- II) a-b-c-d, e, f eta g-h motatako jardueren ordenazioa eta sekuentziarioa nolakoa den azal ezazu.
- III) Koadro batean adieraz ezazu zenbat jarduerak dagozkion estrategia metodologiko eta didaktiko bakoitzari (zehatz ezazu gai bakoitzari dagozkionak) eta a-b-c-d, e, f eta g-h jarduerak motei dagozkion jarduerak kopurua. Koadro bakarra egin behar da.
- IV) Koadro batean adieraz ezazu zure balorazioa (1etik 5era) estrategia metodologiko eta didaktikoak jarduerak mota bakoitzarekin izan beharko lukeen erlazio mailari.
- V) Testu liburuan agertzen diren edukiei buruzko hausnarketa eta balorazio kritikoa egin ezazu.